

ILUSTRAZIOA

Joxe Azurmendi

Ilustrazioa gutxi gorabehera XVII. mendearen azken herenetik XIX. mendea arte doan filosofian eta, orokorki, kultur mugimenduari eta aldiari ohi deritzo: mugimendu filosofiko eta kultural gisa, Aro Moderno sekularatuaren *postulatu arruntak berak ezarri ditu, hauek funtsean gaur egunerarte balio duten eran, aldi historiko gisa, europar kontzientziaren krisitik iraultza-aldira doala, esan ohi den arren, zaila da noiztik noiz arte doan zehatz mugatzea; baina XVIII. mendeari ohi deritzo Ilustrazioaren Mendea. Etorri, lehenagotik etorri da bideratuz; hala ere, zentzu hertsia goan Ilustrazioa deitzen denak, maiz, XVI. eta XVII. mendeetako aurkikunde zientifiko eta birplanteamendu filosofiko (Bacon, Descartes) zein juridiko-politiko (H. Grotius, Hobbes), historiko (P. Bayle) eta erlijiosoen ondorio eta luzapen besterik ez dirudi eta. Eskoletako mugaketa zehatz baino buru-lagungarriago batek Ilustrazioa *iraultza burges klasiko baten artean lekutzen du: alegia Ingalaterrakoaren (1688-89) eta Frantziakoaren (1789) bitartean; Bacon-en *Novum Organum* (1620) eta Kant-en *Kritik der reinen Vernunft* (1781) obraren artean lekutzen dute beste batzuk *erizpide tematikoagoz. P. Hazard-ek 1680tik 1715a bitartean ezartzen du Ilustrazioari bidea irekiko dion "europar kontzientziaren krisi" larria, handik harako desarroiloari eritzi beharko bait zaio Ilustrazioa. Bukatu, XIX. mendearen hasieran, Frantziako Erreboluzio osteko erreakzio kontserbatorrak, berrezarkuntzak eta erromantizismoak bukatzen dutela Ilustrazioa, zehazkiago muga daiteke.

*Errenazimentu humanistarekin, Erreforma eta Kontrarreformarekin, eta Erromantizismoarekin, Ilustrazioak pentsamendu modernoaren mugimendu orokorretako bat osatzen du, pentsamendu modernoaren aro bat osoa.

I. IZENA ETA KONTZEPTUA

A) ARGIKETA ILUNDEGIAREN AURKA

Ilustrazio izena espainieratik (*Ilustración*) hartua da. Espainieraz *Siglo de las Luces* ere esan izan da, ordea, beste hizkuntza guztietan ere izenak beti argiari (argiei hobeto) erreferentzia egiten diola: portugesez *seculo das Luces*, frantsesez *Siècle des Lumières* (eta *siècle éclairé*), italiaraz *illuminismo* (espainieraz ere erabilia), ingelesez *enlightenment*, alemanez *Aufklärung*, nederlandez *Verlichting*... **Argiketa** edo, euskaraz, Argiekiko hau garrantzizkoa bait da, bere buruari izena berak ezarri dion aldi honen autokontzientzia eta *definizioan, *kontzeptu ideologikoa eta polemikoa da argiarena (argiena), *arrazoimena eta argiak (*zientziak, arteak) adieraziz, hain zuzen autoritateak, tradizioak eta *errebelazioak gidaturiko lehenari, hots, obskurantismoari, ilundegiari, izpiritu kritiko razionalistak gidaturiko Aro berria argi-aro bezala kontrastatuz.

B) AUSART HADI HEUK JAKITERA

Ilustrazioa, Kant-ek dioen bezala, (*Was ist Aufklärung?*, 1784) "gizakiaren, berak bere erruz merezitako adin-txikitasunetik irtetzea da. Adin-txikitasuna, adimenaz beste inoren gidaritza gabe norbera baliatzeko ezgaitasuna". Ilustrazioa, beraz, autonomia eta askatasuna da, edozertarako eta nonahi norbere arazoimenaz ageri baliatzeko, inoren esanetara ibili gabe. **Sapere aude**, "ausart hadi heuk jakitera!", hots, heure buruz pentsatzera, izango da Ilustrazioaren maxima.

C) ARRAZOIAREN ARGIAN SINETSIA

Erdi Aroko gizakiak, bere zorionerako eta gizartearen ordena zuzenerako, errebelazioaren argian sinesten zuen bezala eta, ondorioz, bere buruaren gainetik Autoritateak, eliztarrek

nahiz zibilak, (jainkozko ordena baten arabera) onartu zituen bezala, ilustratuak bere arrazoimenaren argian sinestuko du, gizona bere betetasunera eta nagusitasunera gidatzeko, aurrerapena oinarritzeko eta aitzinarazteko. Beraz, Ilustrazioaren azkenetan Kant-en *sapere aude* aurkitzen den moduan, hasiera-hasieran Bacon-en "jakitea boterea da" (*tantum possumus quantum scimus*) maxima aurkitzen da. Descartes-ek: *Savoir pour pouvoir, pour prévoir*. Bi maxima horiek zuzentzen dute Ilustrazioa.

Negatiboki, Ilustrazioa, "aurreritiz" beteriko mundu-ikuskerara dogmatiko, supranaturalista baten aurkako erreakzio bezala ezagutaraz daiteke. Positiboki, baina guztiz arrunki, arrazoimenaren autonomian eta *ezagumenaren mugagabetasunean, aurrerapenaren azkengabea eta gizarte-antolaketaren zeharoko perfektibilitatean uste osoz, argizko aldi berri zoriontsu bat eraikitzeko asmoa zuen mugimendu orokor bezala defini daiteke.

D) INDIVIDUALISMO ETA SUBJEKTIBISMOAREN GORALDIA

Filosofikoki, zehazkiago, Ilustrazioak individualismo eta *subjektibismo modernoaren goraldia adierazten du, *razionalismoaren eta *enpirismoaren garaitzapena metafisika klasikoaren gain. *Gizakia eta beronen lanak bilakatuko dira *pentsamenduaren lehen objektu (Ilustrazioa antropozentrikoa da): gizakia eta natura, naturaren barruan gizakia, gizakiarentzat natura. Metodoari gagozkiola, aldiz, metodo esperimentalak biziki desarroilatuko dira Ilustrazioan eta filosofian ere matematikako metodoez baliatu nahiko da. *More geometrico* eta *more mathematico* inhardutea izango da eskakizun metodiko nagusia. Ilustratuek berek XVIII. mendeari "Filosofiaren mendea" eritzi ohi zioten, argiak eta filosofia nolabait berdinduz.

II. INGURU HISTORIKO-SOZIALA

A) INTEGRAZIO-MOLDE SOZIAL BERRIAK

Ilustrazioaren sustraiei pentsamendu aldetik begiratuta, XVII. mendeko razionalismoaren eta *natur zientzien goraldiaren emaitza eran ageri da Ilustrazioa. Baina momentu historiko eta sozialari ere begiratu behar zaio. Europa modernoaren sorrera-puntua da. Erlijio-gerrak Westfalia-ko Bakean (1648) amaituz gero, *erlijioa propioki *Estatu-gorabehera bilakatu da, ez da gizadiaren (edo kristaduarien) arazo komun eta oinarritzakorik: galdua da Europa-n homogenotasun ideologikoa (erlijiosoa), hots, **Romania** erdiarotiarra, bere Autoritate eta *arau unibertsal sakratuekin (Eliza, Inperioa). Azkenik, egiazko erlijioaren ausia ez disputazio teologikoz eta ez araz erabaki ahal izan denez gero, *egiaren erizpidea eta araua beste nonbait bilatuko da: arrazoimen autonomoan. Egia seguruenak berak (dogmak) hain inseguru bihurturik, ezagutza arras ziurraren bila, Descartes edozertaz eta guztiaz dudatu behar dela finkatzetik abiatuko da. Egia ziur-ziurraren bilaketarako baldintzak eta arauak erabakitzea Ilustrazioaren etengabeko zeregin bat izango da (Descartes - Kant).

Banaturik bere barnetik, kohesioa ematen zion dogmak honez gero biltzen ez duenez, integrazio-molde sozial berriak bilatuko ditu gizarteak, kontratu sozial berri bat, *borondate oneko gizon guztiak eta *herriak oro elkar ditzan, egia ziur eta eztabaida oren gainetik batzuen gain: horiek ezin izan bait daitezke, ilustratuon ustez, balio eta arau razionalak besterik, hots, naturalak (zuzenbide naturala, erlijio naturala, moral naturala). Naturaltasuna eta arrazoizkotasuna kontzeptu oinarritzakoak eta elkarren osagarriak dira Ilustrazioarentzat. Mundu Berriaren eta kristau ez diren herrien aurkikuntzak are indartzenago zuen arau sozial unibertsal eta laikoaren eskakizuna.

B) EGIA NATURAL, UNIBERTSAL ETA PROBETXUGARRIAREN BILA

Beraz, Ilustrazioak, Erreforma eta Kontrarreformarekin galdutako *egia definitiboa birbilatzen zuen, munduaren irudi berriari egokitu zekiona (aurkikuntza geografikoek nahiz zientifikoek eskatzen zuten legez), eta arrazoimenaren bidez birbilatzen zuen hura. Filosofiaren historiarako garrantzitsua arrazoimen kontzeptuaren *eboluzioa izan da puntu honetan. Arrazoimena, batetik, egiaren gordailu edo *errebelazioaren adierazle/laguntzaile izatetik, bilaketaren organo autonomo izatera pasa da; *esperientziaren aldean bereber eta nagusi izatetik, haren manupeko bihurtu da, bestalde. XVII. mendeko razionalismoaren arrazoimen

Ilustrazioa

kontzeptuari buruz-buru arrazoimen kontzeptu dinamiko eta instrumental bat da hau. Ageriago ikusten bait da hori Ilustrazioak bilatzen zuen egia natural eta unibertsalaren hirugarren karakteristikari: probetxugarria izan zedin egia bilatzen zuen. Zertarako? Gerraren eta txikizioen absurdua behin-betiko erazteko eta, natura menderatu ahala, gizadia atzerapen eta miseria orotatik erosotasunera eta askatasunera jasotzeko. Arrazoimena beti arrazoimenaren berdina dela eta *legeek ere leku guztietan berdinak eta gizaki guztiek anaiak izan behar dutela, postulatuko da: XVIII. mendean topiko bilakatu da "Europar errepublikaz" mintzatzea ("un Etat composé de plusieurs provinces" bait da Europa Montesquieu-rentzat), "betiereko bakeaz" tratatu mordoak publikatuko da orobat (Abbé de Saint-Pierre, Rousseau, Kant), Estatu-nobela utopikoak modan jarriko dira. Ilustratua kosmopolita sentitzen da. Ilustratua, gainera, natur zientziaz eta teknikaz interesatzen da, bide honetatik *aurreerapena eta giza bizitzaren hobetzea espero ditu eta. Baina guzti hori bere arrazoimenaren kontzeptu propioetik dago, egon, eta bere egiaren ulerkeratik. *Kosmos guztia mekanismo konplexu baina perfektuzat jotz eta gizakia bera, azken finean, makina baten gisako hartuz, *ordena kosmikoren legeak ikertzen ahalegindu da, gizakiarenak eta gizartearenak ere esplikazio mekanikoa daukatelakoan eta, erreforma sozial eta politiko-ekonomiko razionalen bidez, gizarte zoriontsua eta betiereko bakea lor daitezkeelakoan. Guzti hau argien bidez espero da: "Occupé à méditer depuis longtemps sur les moyens d'améliorer le sort de l'humanité, je n'ai pu me défendre de croire qu'il n'y en a réellement qu'un seul: c'est d'accélérer le progrès des lumières" (Condorcet).

Ilustrazioa emantzipazio-mugimendu burgesaren forma historiko bat da, burgeseriak klase gisa osatzea lortu eta ordena korporatibo-feudalaren eta monarkia absolutisten aurkako borrokarri ekin zion garaikoa, hain zuen. Ordena feudalari zegokion mundu-ikuskerara metafisiko-teologikoa desegino du Ilustrazioak, baina pentsamendu honek ere nabarmen dauka bere klase-karakterearen marka: klase-interes berezi eta partikularrak "giza interes natural". "giza eskubide arrunt" edo, soilki, "eskubide demokratiko" deklaratzan dituenan bereziki, baina egiaren eta arrazoimenaren ikusmolde guztian ere bai, azken finean.

Ilustrazioa gobernura ere iritsi da XVIII. mendean, zenbait monarka eta ministroren bidez: Federiko II. Prusia-ko, Katarina II. Errusiako, Jose II. Austriako, Karlos III. Espainiako, eta abarren bidez.

III. LEKUAN LEKUKOA

XVIII. mendean Europa-k bake erlatibo bat eta egonkortasun politiko dexente gozartu ahal izan ditu eta harreman komertzialak Estatuan artean azkartu, bide batez komunikazio- eta informazio-trukaketa ugartuz. Intelektualitateak, bestalde, aski homogenoa da, horrela izan bait da posible Ilustrazioa Europa guztiko fenomeno bilakatzea, Errusia-tik Portugal-eraino. Hala ere, bortitzena eta homogenoena Erdiko Europa-n ibili da Ilustrazioa, epizentroa Holanda-n duela, periferian beranduago eta motelago. Eraginkorrena eta, nolabait *bestearen eredu, XVIII.ari arrazoiez "mende frantsesa" deitu ahal izateraino, Ilustrazio frantsesa gertatu da, hau berau Bacon, Hobbes eta Locke ingelesen jarraipenean etorria izan arren. Ilustratuen hizkuntza unibertsala frantsesa da, galdua den latinaren lekuan; Frantzia-k dirudi nazioen eredu (Caraccioli diplomatiko italiararen saio batek adierazten duenez: **Paris, le modèle des nations ou L'Europe française**, 1776). Euskal Herrian eta Espainia-n eragin frantsesaren bitartez sartu da Ilustrazioa.

A) EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriko ilustratu gisa Azkoitiko Zalduntxoak gailentzen dira (1748an biltzen hasiak) eta horien inguruan sortutako **Real Sociedad Bascongada de Amigos del País** elkarteak (1765ean sortua, berrogei kide inguru zituen Euskal Herrian) eta Bergarako **Real Seminario Patriótico Vasco** ikastetxea. Ilustratu nafarrei buruz (J. Ustariztarra, etab.), ikus J. Caro Baroja, **La hora navarra del XVIII**, 1969.

B) HOLLANDAN

Independentzia irabazi berri duen Holanda merkatari eta tolerantea izpiritu kritiko askoren aberri propio bihurtu da XVII. mendean, lehenengo Ilustrazio zentru handi bilakatu,

hemendik hedatu bait da gero Ingalaterra, Frantzia eta Alemania-ra. Holanda-n ezarri zituzten arminianoek eta sozinianoek erlijioaren ikusmolde racionalista baterako zimentuak. H. Grotius-ek, *humanismo klasikoaren ildotik, zuzenbide naturalareko oinarrien gainera itzuli zuen Estatuaren eta herriaren teoria, *politika, *zuzenbidea eta Estatu, errebelazioaren eta *teologiaren menpetik atereaz. Honela, irabazitako *tolerantziaren ideiarri eskaini zion Spinoza-k bere lan filosofikoaren zati handi bat (**Tractatus theologico-politicus**, 1670), P. Bayle-k eta Voltaire-k Frantzia-n, J. Locke-k Ingalaterra-n, Lessing-ek Alemania-n, arazo hau biziki landuko bait dute. Ilustrazioaren arazo nagusi bat tolerantziarena izango da. Holanda-n bilatu zuen babes Descartes-ek ere, *ezagutzaren oinarri metodikoa *zalantza orokorrean ezarri, Ilustrazio guztiaren jokaera metodologikoa berak erabaki bait du: *kartesianismoak, Holanda kalbinistako Unibertsitateetan berehala nagusitu izanez gero, errebelazioaren eta arrazoimenaren arteko disputa luzeak biztuko ditu; berau izango da Ilustrazioaren beste gai nagusienetako bat.

C) BRITAINIA HAUNDIAN

Britainia Haundian, non bai bait dira anglikano, kalvinista eta katolikoez gain beste hainbeste erlijio txikiago, tolerantziaren ideia soiletik erlijio naturalarenera eta *deismora jo da (H. Cherburyko, **De Veritate**, 1624), are kristautasun naturalera berera iristeko, dogmarik eta *misteriorik gabe (J. Toland, **Christianity not mysterious, or the gospel a republication of the religion of nature**, 1730) mirarien eta dogmen kritikan beti gogor saiatzen da arrazoimenaren izenean, eta erlijio "probetxugarri" baten ondoan zuzenbide naturala *Etika bat ere landuz, guzti honek eragin bortitza izan bait du kontinentean. 1688ko Gloriatzako Iraultza edo **Glorious Revolution**-ek errege berria atzeritik deitu duenean, alde zuzenetik monarkia egiazko kontratu batez obligatuz eta konstituzio batez Errege-boterea mugatuz egin du: Ilustrazio britanikoak finkatu du, J. Locke-k bereziki, liberalismo politiko eta ekonomikoaren korrantea. Baina, batez ere, Fisika modernoa eman du Ingalaterra-k (Newton), filosofia ilustratuarentzat eredu izango dena. Deismoa eta liberalismoa izan dira Ilustrazio britanikoaren ezaugarri nagusiak. Esan daiteke, *epistemologia modernoa halaber Locke-k planteatu duela (**Essay Concerning Human Understanding**, 1690), gero, Berkeley-ren eta Hume-ren garapenen bidez, Kant-enganaino garamatzana, zeina, azkenean, filosofia moderno guztiaren arazo nagusi bilakatuko bait da.

D) FRANTZIAN

Frantzia absolutistako Ilustrazioak, Descartes-en eta P. Bayle-ren eragina aparte (biak Holandan ihardunak), britainikotik hartu ditu gehienbat bai gaiak eta bai gogoeta-metodoak, baina bera da lortu duena, **Entziklopediaren inguruan (1751-1780)**, Ilustrazioko pentsamendua *sintesi orokor batean biltzea eta, batez ere, desarroilo guztiz polemikoz, ideia ilustratuak borrokarako arma bihurtzea, aurreritzi guztien eta, bereziki, Elizaren aurka, Iraultzarako bidea urratuz. Baina hemen bi alderdi berezi dira aipatu beharrekoak: Locke-ren eta Hume-ren epistemologiak. Hauek *pertzepzioaren eta *sentsuen oinarrikotasuna azpimarkatzen bait zuten, desarroilo arras materialistak eta sentsistak eman dizkie Ilustrazio frantsesak (Diderot La Mettrie, Holbach, Helvetius, Condillac, Cabanis...). Eta Fontenelle-ren ikuspegiak desarroilatuz (**Digresion sur les Anciens et les Modernes**, 1688), historiaren ikusmolde ziklikoaren ordez lineal-progresiboa erabili bait du hark eta haren ondoren Turgot Condorcet, eta abarrek, ilustrazio frantsesa historia guztia progresio-moduan bururatzera helduko da, historiaren filosofia modernoari hasiera emanez, batez ere Hegel-ek eta Marx-ek landuko duten harian. Frantziako autore ilustratu sonatuenak, aipatuz gain, d'Alembert, Voltaire eta Montesquieu dirateke; Rousseau, Kant-en antzera, ilustratu adina Ilustrazioaren hilobirratzaile kontsidera daiteke.

E) ALEMANIAN

Alemanian, franko berandu hartu du indarra Ilustrazioak (**Aufklärung**) eta, azkenean, planteamendu teorikoak inon ez bezala sakontzera helduko bada ere (Kant-ekin bereziki), mugimendu sozialik izatera ez da iritsi; kataderetako eta tronuko Ilustrazioa izango da gehienik. Leibniz eta Wolf, filosofian, arrazoimenaren emantzipazioa bultzatzen baino gehiago, arrazoimenaren eta errebelazioaren arteko akordioa erakusten enplegatzen dira. S. Pufendorf eta Ch. Thomasius, zuzenbidea, erlijioa eta natura dualismo batean banatuz iritsiko dira

Ilustrazioa

zuzenbide naturala finkatzera, erlijioa erabat errespetatuz. Konkomitantziak utzi eta erlijioaren ikuspegi kritiko egiaz ilustratua Reimarus-en testuen argitalpenarekin (1774-1777) eta Lessing-ekin hasiko da. (Lessing-ek Joanes Huarte Donibaneko alemanera itzuli zuen). Ilustrazio alemanaren gaina eta une bereko garaipena Kant-ek markatzen du.

IV. GAI ETA KONTZEPTU NAGUSIAK

Ilustrazioaren baitan, filosofiari gagozkiola beti gizakiari gagozki funtsean, oinarritzko gai hau gnoseologiazko eta moralezko arazoetan desarroilatzen delarik gehienbat. Kontzeptu nagusiotara bil daiteke Ilustrazioko pentsamendua:

a) Naturaltasuna

Ilustrazioak beti forma naturalak bilatuko ditu, erlijioan, zuzenbidean, Estatuaren teorian. Funtsean naturaltasunak sekularizazioa adierazi nahi du eta egiaz Ilustrazioak ahaleginak egin ditu politika, Estatu, moral publikoa eta pribatua, zientziak, hezkuntza, sekularizatzeko.

b) Arrazoizkotasuna

Arrazoimenak bere baitatik desarroila ditzakeela, uste da, giza bizitzan behar diren printzipioak oro, moralezkoak, erlijiozkoak, etab., errebelazioaren premiarik gabe. Mirariak, deabruen eta aingeruen existentzia, etab., biziro eztabaidatu dira.

c) Onura

Egiaren bilaketak eta ezagutzak izaera utilitarista dute, batez ere erlijioaren eta moralaren planteamenduetan ondorio larriak izan baitu onuraren eskakizuna balorazio-erizpide bihurtzeak. *Estetikari berari (Ilustrazio garaian sortua: Shaftesbury, Baumgarten) erizpide utilitaristak aplikatu nahiko zaizkio. Poesia berehala hilko dela iragartzen du Fontenelle-k.

d) Aurrerapena

Gizakiaren salbazio- edo galbide-arazoa, Erdi Aroarentzat kezka nagusia dena, atzerapenaren eta aurrerapenaren arazo bihurtu du Ilustrazioak. Aurrerapena ez da gizakiaz kanpoko edo tekniko bakarrik; hark giza naturaren beraren betegingarritasun mugagabea ere besarkatzen du, mesianismo sozial eta politiko modernoak bidean jarritz.

e) Tolerantzia

Bai printzipio katolikoaren eta bai *cujus regio* printzipio protestantearen kontra, printzipio indibidualista oinarritzko *eskubide natural bezala proklamatu da kontzientzi arazoetan (Spinoza, Locke); Bayle-k zuzenbide naturalaren doktrinan ez, baizik bere *eszepzizismoan eta egia osoa inork osorik ezin ezagutzean oinarrituko du tolerantziaren arrazoa.

f) Humanitatea

Hitzaren zentzu bikoitzean: gizatasuna eta gizadia. Humanitatea gizadi gisa, Elizaren edo Estatuaren ordezkotza erreferentzia, ilustratuaren komunitate soziala, Ilustrazioaren unibertsalismo eta izpiritu kosmopolitaren adierazgarri da. Aurrerapenaren kontzeptuari lotua dago. Humanitate-sentimentua karitatearen edo Jainkoaren amorearen lekuan ezartzen da, obra sozialak motibatuz. Hemendik dator ondorio gisa:

g) Benefizentzia

Abbé de Saint Pierre-k XVIII. mendearen hasieretan asmatutako hitza, Ilustrazioaren ezaugarritako bat da. Molière-n *Don Juan*-en, "Jainkoaren amorez" eskatzen duen eskaleari, "humanitatearen amorez" ematen dio limosna libertinoak.

h) Dohatasuna eta oparotasuna

(Amigos del País-ekoek azkartu nahi zituzten **felicidad** eta **prosperidad** haiek) dira Ilustrazioak gizartearentzat dauzkan jomugak.

i) Zibilizazioa

XVIII. mendeko kontzeptua orobat, aurrekoekin hertsu-hertsu lotua, nolabait guztion sintesia adieraz lezakeena da. Munduaren autonomia ezagutzeak "mundu soziala gizonen obra dela" (J.B. Vico) agerterazi zuen, hots, erakunde eta formazio sozial ororen historikotasuna, gizadiaren natura menperatzeko eta bere buruaz jabetzeko ihardun etengabea. Ikusmolde honetan giza historiak *zibilizazioaren histori eitea hartzen du (zibilizazio-moldeak eta mailak desarrollatzen dira); geroari buruzko gizakiaren zereginek eginbide zibilizatzaile baten izaera hartzen dute, moralala eta humanitarioa. Zibilizazio kontzeptuak, horretara, giza ekintza historiko jarraitua adierazteaz beste, gizadiaren xede moralala azaltzen du, giza naturari datxekon beti hobetuz aritzeko agindu moralala.

Ilustrazioa, bada, intelektualista da, baina pragmatiko eta utilitarista halaber; indibidualista, baina filantropiko eta kosmopolita; mundu maitale eta optimista, naturaz haraindiko botereei erabat uko egin gabe (deista); gizakiaren salbazio transzendental batez ahaztua bezain gizadiaren aurrerapenari eta posibletzat daukan gizonen "zorionari" gogoemana.

V. ILUSTRAZIOAREN OROKORTASUNA

Ilustrazioaren ardura, bizitza sozial eta kulturalako alor guztietara, hots, giza ihar-duera orotara hedatu da.

A) ESTATUA ETA ZUZENBIDEA

Estatua eta *zuzenbidea estoikoengandik eta Erdi Aroko filosofiatik zetorkien zuzenbide naturalaren tradizioari atxekiz eta hura razionalismo berriaren erara birmoldatuz, Ilustrazioak giza naturaren antzera nahi izan ditu Estatua eta zuzenbidea taxutu: alegia, eranskin konfesional eta tradizional oro kendu eta bizitza soziala "lege natural" hutsez eta raziokalki antolatuz, legeok 1) berez eta beren horretan soil *natur zientzietako edozein *proposizio bezain garbi eta ziurrak direlakoan, eta 2) ezagutzeko ere *sen onaren eta *zentzu komunaren premia beste aurrealdintza gabe (Locke), hots, ikasketa berezirik gabe, gizaki guztiek berdin ezagut eta onar ditzaketanak direlakoan. Printzipio horietatik sortu dira giza eskubideen lehenengo deklarazio ofizialak (1776, 1789): Gizakia berez libre jaio da, boterea herriak berea du, etab. Botere-zatiketa hirukoitzaren teoria, tolerantziaren printzipioa eta Estatu modernoan oinarritzko beste printzipio asko, Ilustrazioak desarrollatuak dira. Ilustrazioak sorgin-erreketak, tortura, etab., debekatzea lortu zuen (Prusia-ko Federiko Handia), kriminalen kastiguak biguntzea eta proportzio-araua (okerra adinako pena) aplikatzea eskatzen zuen (Montesquieu), hiltzeko penaren printzipiozko legitimitatea eztabaidatu (Beccaria), etab. "Zuzenbidezko Estatua" deritzona gehienbat Ilustrazioaren obra da.

B) ERLIJIOA

Ilustrazioak (Bibliaren kritikaz, etab.) sekularizazioa bideratu du, baita konfesioak berak erreforma frankotara behartu ere. **Gizarteari** dagokionez, erreforma sozial, ekonomiko, administratibo ugari eragin du; azken finean, iraultza prestatu ere berak egin du. Giza bizitza hobetzen ahalegindu da, higieena eta asistentzia begiratzuz, laborantza modernizatuz, merkataritza antolatuz, etab. ***Pedagogiak** eginkizun zentrala du Ilustrazioan (Ilustrazioa = argiketa = pedagogia). Eskola-sistema guztia berrikusi zuen, hezkuntz metodo arrazoizkoak eta naturalak entseiatu zituen (Rousseau, Pestalozzi). **Literaturan** eta arteetan joera razionalistak eta didaktikoak nagusi erazi ditu. Aforismoak, epigramak, alegiak, saioa, genero txit landuak dira. Ingalaterra-n nobela modernoa sortzen da. **Giza zientzietan** (historia, etab.) aurrerapen biziak ekarri baditu ere Ilustrazioak, emanagoa izan da **Natur Zientzietara**, Fisikara bereziki eta teknologiarara. Natur zientzietan aipagarriak dira: Linnaeus, Buffon, B. de Maillet, L. Galvani, A. Volta, A.M. Ampere. Teknologian J. Watt, J. Kay, H. Hargreaves, E. Whitney.

Ilustrazioa

Guzti honi **filosofia** ohi deritzo Ilustrazioak. Zuzenago, guzti horren barnean Ilustrazio guztia sostengatzen duen filosofia jakin bat dagoela esan beharko litzateke gehienez ere. Eta, zuzenago, alderen alde Ilustrazio guztia pasatzen duen razionalismoaren (Descartes) eta enpirismoaren (Bacon) arteko teinka eta borroka beharko litzateke seinlatu, astiro-astiro, Ilustrazio-aldia aurreratuz doan eran, enpirismoaren nagusitzetaz eta kartesianismoaren itzalteaz erabakiko dena.

VI. METODO ZIENTIFIKOAREN BILA: "MATHESIS UNIVERSALIS"

Ilustrazioa, "filosofoen mende"tzat hartzen bada ere eta ilustratuek beren buruak "filosofo"tzat jotzen bazituzten ere, filosofiaren historian trantsizioaldi bezala ageri da gehiago. Batez ere kontu egiten badugu, aldi honetan egiaz filosofo gisa aipagarrienak direnak ezin daitezkeela, besterik gabe, osotero ilustratutzat har, beren obra nagusietan, hain zuzen.

A) EZAGUTZAREN ARAZOA

Ilustrazioko filosofia guztia gai nagusi gutxi batzuren inguruan mugitzen da eta gai horiek ere, funtsean, batetara bihur daitezke: ezagutzaren arazora. Hau da, Ilustrazioko filosofiak "oinarrietara itzuli" bat adierazten duela esan daiteke, hots, ezagutzaren oinarriko elementura edo unera, lehen iturburura itzultzea alegia, gero handik hara, elementu sinpleen gainean, beste ezagutza guztien bilduma eta jakite guztien sistema jasotzeko. Asmo hau obratu nahiz, bi jokabide kontrarioen artean, hau da, elkar ukatzen eta osatzen zuten razionalismoaren (dogmatismoaren) eta enpirismoaren arteko teinkan desarroilatu da Ilustrazioko filosofia. Oro har, enpirismoaren langile, filosofo britanikoak (F. Bacon, Hobbes, Locke, Hume) ibili dira; kontinentalak (Descartes, Malebranche, Spinoza, Leibniz), al-diz, razionalistagoak agertu dira. Dikotomia hau gainditzeko Kant-en saio bortitzak hertsiko du, hain zuzen, Ilustrazioa: Baina biek, razionalismoak (modernoak) zein enpirismoak, natur zientziak dituzte eredu metodologiko, matematikak bereziki, Ilustrazioko filosofia ororen ezaugarri nagusitzat horixe jo baitaiteke. Alegia, beti ere, eta beti aristotelismoari kontrajarririk, filosofia zientifiko bat bilatzen da, zientziakotasuna justu eredu matematikoaren arabera ulertuz.

B) ARISTOTELE KRISIAN

XIV. mendeaz gero Aristotele krisian erortzen da, humanistek kupida gabe eraso, F. Bacon-ek azkenik **pessimus sophista** bezala baztertua. Metafisika aristotelikoan bi puntu eroriko dira batera: errealtatea *esentzia aldaezinez eta *genero eta *espezietan hierarkizatuz osatzen dela dioten teoria ontologikoa (*ontologia), eta esentziok ezagutzera iristeko moduz irakatsi duen teoria gnoseologikoa (*gnoseologia). Natur zientzia modernoan aurrerakadaz, Ilustrazioak errealtatearen ikuspide pragmatista nagusi erazi du, alegia, errealtatearen ikuspide kausal-mekanikoa, ez teleologikoa eta ez esentzialista, teoria mailan errealtatea adigarritasun matematikora bihurtzen saiatuz (formula matematikoen antzekotara), baita giza zientzietan ere (moralean, etab.). Galileo-z gero garbi geratu da *zenbakia, *espazioa, *denbora, mugimendua, ez direla adimenaren funtzioak beste ezer, zientzilariaren kantitateak neurtzeko lanean. "Berez" deus ez dira. Azkenerako, bada, errealtate guztia lege zientifikoek espresatzen dituzten lotura kausal-mekanikoak baino ezer gehiago ba ote den, sortuko baita da problema edo, behintzat, errealtateak "berez" gehiago izatea baleuka ere, guk hartaz ezagut eta baiezta genezakeen horixe besterik atzeman ote lezakeen (*ahalmenen eta ezagutzeko aktuaren naturaren arazoak). Hein berean, errealtatea bera ez da "esentzien" erreinurik, esperientziak atzematzen eta lege zientifikoek espresatzen dituzten fenomeno hutsena baino. Aro Modernoaren hastapenetan problematika gnoseologikoa dago: zer balio duen gure ezagutzak, nola den posible, zenbat den posible eta zertarako; eta ontologia, errealtatea zer den, arazoa, guretzat zer den, bihurtzen da.

Biraketa hau *nominalismoak aspaldian eta, gertuago, eszeptizismo humanistak eta *erlatibismo erlijiosoak prestatu zeukaten. Aro Modernoaren atarian F. Bacon, etab., metodo zientifiko baten premiaz aski kezkatu bazebiltzan, kezka hori Descartes-en filosofiako arazo nagusi bihurtuko da, harez geroko filosofia guztikoa bide batez: *Necessaria est*

methodus ad rerum veritatem investigandam" (Descartes). Horrela bakarrik eskura daiteke egia irme eta ziurra, edozein kontrakarra eta zalantzari eutsiko diona. Beraz, traktaturik ugari idatziko da aldi honetan, ezagutzen engainuak eta okerrak (Bacon-ek idoloak) nondik sortzen direnentz arazoaz, eritziaz eta jakiteaz, adimenaren izaeraz, sentsuek ezagutzen duten par teaz, etab.

C) MATEMATIKAREN EREDUA

Metodoaren lanketarako Ilustrazioa eskema matematikoari atxekiko zaio beti: "omnia apud me mathematice fiunt (Descartes). Hau da, arrazoizko egia ziur eta ebidente bat bilatu eta "handik deduzitu munduan diren beste gauza guztien ezagutza", Descartes-ek nahiko duenez. Edo eta sentsuak hartuz ezagupide ororen iturburutzat, *indukzio bidez esperientziako *datu soilen gain eraiki jakite osoa, osagarri sinpleenetatik konplexueneraino. Nondik datoz ideiak? "Esperientziatik; hau da gure ezagutza guztien oinarria eta guztiak hementxe dute beren sorburua" (Locke). Esperientziaren aurretik adimena **tabula rasa** edo ohol soila (**sheet of white paper**) da.

Beti matematikariei jarraiki, aldi honetako filosofo guztiak funtsean berdin dihardutela ikusten dugu, hots, oinarri ahelik sinpleen batetara bihurtuz ezagutzen sistema guztia: *ziurtasunaren elementu sinpleenera edo **cogito**-ra (Descartes), **tabula rasa**-ra eta ukitzen duten inpresioetara (Locke); orobat, erlijio positibo guztiak jatorrizko erlijio naturalera mugatzen dira (H. Cherburyko), bertuteak oro gizakiaren irau-nahira (Spinoza-k: "conatus sese conservandi primum et unicum virtutis est fundamentum"), legeak eta eskubideak oro zuzenbide naturalera (H. Grotius), etab. Horixe da iharduteko metodo arrunta. Badago, beraz, funtsean monismo epistemologiko antzeko bat, axiomatismo-grina bat, Newton-en ereduua deitu dena. Newton-ek **Philosophie naturalis principia mathematica** (1687) argitaratu eta gero, J. Craig haren adiskideak berehala agertu zuen **Teologia kristauaren printzipio matematikoak** (1699) laster antzeko beste askok jarraitu zuen metodo hori. Leibniz metodo bat lantzen saiatu zen, sintesi unibertsal batean zientzia guztiak matematikaren adaska bihurtzeko, matematika unibertsal hori, beste disziplina guztiak bere baitan bilduko zituzkeen zientzia goren hori alegia, gizadiaren **Philosophia perennis** izan zedin. Eta, Einstein-ek baino lehen, d'Alembert ek fenomeno guztien orotasuna ekuazio batean espresatzeko ametsa egiten zuen, zeina unibertso osoaren formula matematikoa izango bait zen.

D) KEZKA MORALA

Dena dela, Ilustrazioa guztiz faltseatuko genuke, ezagutzaren arazo hau arazo teoretiko eta intelektualista soiltzat har bageneza. Aitzitik, hura oso loturik dago Ilustrazioaren kezka moralei. Ilustrazioa, ez da ahaztu behar, moralisten goren puntua da: XVIII. mendeko pentsalari eta idazle guztiak funtsean moralista izan nahi dute, "ez da sekula beste halako moralisten ekinaldi bat ikusi" (P. Hazard). **Kritik der reinen Vernunft** en (1781) irakur dai-tekeenez, arrazoimenaz ongi baliatzeko, xedeak behar dira, *helburuak, eta "xede goren-gore-nak moralitasunezkoak dira". *Moralak (etikak) koroatzen du zientzien sistema, jakintza bera, azken finean, gizakiaren *perfekzioarako eta dohatasunerako baizik ez da eta (Spinoza-k: "Unde quisque iam poterit videre, me omnes scientias ad unum finem et scopum velle dirigere, scilicet, ut ad summam humanam, quam diximus, perfectionem perveniatum"). Hori bai, moralean ere Ilustrazioak razionalki jokatu nahi du: moralitasuna sostengatzeko aski da arrazoimena, Jainkoaren (Elizen) nahia edo dekretuak gabe; giza izaera edo natura bera da aski, natura moral bat izaki berez gizakiarena (Ilustrazioak ez du aintzat hartuko jatorrizko bekatuaren edo giza izaera ustelduaren doktrina). Lege moralak, *inperatibo kategorikoa, bere naturan idatzirik darama natura razionalak. Honela, hasierako **sapere aude** maximara itzultzen gara: utzi alde bat kanpoko Autoritateak, tradizioak, etab., eta gizakiak bere arrazoimenean (naturan) behar du argitu moralitasunaren printzipioa. Razionalki behar du jokatu moralean ere. Izan ere: "Jainkoa ez da hain ekonomo ibili gizakiaren kreazioan, berak kreatura hankabiko soil egin eta gero Aristotele-ri utzi bait dio hura razional bihurtzea" (Locke).

Ik. Enpirismoa eta razionalismoa; Kritizismoa; Entziklopedistak.